Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**ERANSKINA**

**HITZARMENA, ARABAKO FORU ALDUNDIAK —INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILAREN BITARTEZ— ETA LEZAKO UDALAK EGINDAKOA, LEZAKO LANDA BILKETAGUNEAREN ZERBITZUA EGOKITU ETA MANTENTZEKO.**

Gasteiz, 2015eko abenduaren 31

**BILDU DIRA**

Josean Galera Carrillo Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatu jauna, eta

Inmaculada Laredo Lezako Udaleko alkate andrea.

Parte hartzen duten aldeek hitzarmen hau egiteko behar den lege gaitasuna aitortu diote elkarri eta, horretarako, honako hau

**ADIERAZTEN DUTE**

1.- Arabako Foru Aldundiak 2016 ekitaldirako onartutako aurrekontu orokorretako "60.65 Programa-"2006/2016 Hondakin-planaren" barruan sartuta daudela landa bilketaguneen zerbitzuari dagozkion gastuei aurre egiteko behar diren partidak.

II.- Lezako Udalak baduela borondatea instalazio hori zaintzen laguntzeko, udal eskumenak betetze aldera.

**ANEXO**

**CONVENIO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA, A TRAVÉS DEL DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO Y EL AYUNTAMIENTO DE LEZA PARA ACONDICIONAMIENTO Y MANTENIMIENTO DEL SERVICIO DE PUNTO LIMPIO RURAL DE LEZA**

En Vitoria-Gasteiz, a 31 de diciembre de 2015

**REUNIDOS**

D° Josean Galera Carrillo, Diputado Foral de Medio Ambiente y Urbanismo de la Diputación Foral de Álava, y

Dª Inmaculada Laredo, Alcaldesa del Ayuntamiento de Leza.

Las partes intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal suficiente para celebrar el presente Convenio, y a tal efecto

**EXPONEN**

I.- Que en los Presupuestos Generales de la Diputación Foral de Álava, aprobados para el ejercicio 2016, se incluye en el "Programa 60.65- Plan de Residuos 2006/2016" las partidas necesarias para acometer los gastos inherentes al servicio de Puntos Limpios Rurales.

II.- Que el Ayuntamiento de Leza tiene voluntad de colaborar en el mantenimiento de esta instalación en cumplimiento de sus competencias municipales.

III.- Eraikuntza eta eraisketa hondakinen produkzioa eta kudeaketa arautzen duen Dekretuak (112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa) azken xedapenetan xedatutakoa betez, betebeharra ezartzen zaie zerbitzu hori ez duten udal eta/edo mankomunitateei azpiegitura bat eduki dezaten etxe hondakin mota horiei dagokien tratamendua ezartzeko beren udalaren eremuan, indarrean den legedian ezarritakoaren arabera.

III.- En cumplimiento del Decreto 112/2012, de 26 de junio, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición, en su apartado de Disposiciones Finales se establece que los ayuntamientos y/o mancomunidades, en caso de no disponer de ella, deberán disponer de una infraestructura que permita dar cumplimiento a esta tipología de residuos domésticos en términos acordes a la legislación vigente en el ámbito de su municipio.

IV.- Nahiz eta etxe hondakinen kudeaketa udal eskumenekoa izan, Arabako Foru Aldundiak lagundu egingo dio herri horri europar araudiak hondakinen arloan ezarritako helburuak betetzen.

IV.- Que aun siendo la gestión de residuos domésticos de competencia municipal, la Diputación Foral de Álava auxilia a esta localidad para garantizar la consecución de los objetivos dictados por la normativa europea en materia de residuos.

Bakoitzaren interes eta konpromisoak behar bezala antolatzeko, bi aldeek akordio hau formalizatuko dute, beheragoko epigrafe hauen arabera.

Para la adecuada instrumentación de los respectivos intereses y compromisos, ambas partes proceden a formalizar el presente Acuerdo según los siguientes epígrafes.

Horregatik guztiagatik, aldeek egokitzat jo dute hitzarmen hau egitea, beren konpromisoak bertan jasota gera daitezen, eta horretarako, honako hau

De conformidad con todo lo anteriormente expuesto, estiman conveniente llevar a cabo el presente Convenio a fin de recoger los compromisos de las partes y, a tal efecto,

**HITZARTZEN DUTE**

**ACUERDAN**

**Lehenengoa.- Xedea**

Hitzarmen honen helburua da "Lezako landa bilketagunearen zerbitzua egokitu eta zaintzeko" baldintzak ezartzea, zerbitzu horren edukia delarik bilketagunearen kokalekua egokitzea, hura zaintzea eta horretarako ezarritako edukiontzietan utzitako hondakinak kudeatzea.

**Primero.- Objeto**

Es objeto del presente Convenio el establecimiento de las condiciones de "Acondicionamiento y mantenimiento del Servicio de Punto Limpio Rural en Leza" consistente en el Acondicionamiento de la ubicación, su mantenimiento y la gestión de los residuos depositados en los contenedores colocados al efecto.

**Bigarrena.- Arabako Foru Aldundiaren konpromisoa**

**Arabako Foru Aldundiak konpromiso hauek hartzen ditu bere gain, bai eta dagozkion kostuak ere:**

- Landa bilketagunea egokitzea hormigoizko

**Segundo.-Compromiso de la Diputación Foral de Álava**

**La Diputación Foral de Álava se compromete y asume los costes de:**

- Acondicionamiento de ubicación de Punto

plataforma zabaldu, ingurua garbitu eta informazio seinaleak jartzeko lanen bitartez. Era berean, giltzarekiko giltzarrapo bat ere ezarriko da, landa bilketagunerako sarbidea kontrolatzeko.

- Hesia eta seinaleak zaindu eta berrezartzea.
- Bolumen handiko hondakinak eta etxeetako konponketa obra txikietako hondakin geldoak kudeatzea, haiek edukiontzietan uzten direnetik hasita.
- Hondakin horiek landa bilketagunetik Arabako Foru Aldundiak izendatutako kudeaketa plantetaraino eramatea.

**Hirugarrena.- Lezako Udalaren konpromisoa**

**Lezako Udalak konpromiso hauek hartzen ditu bere gain, bai eta dagozkion kostuak ere:**

- Landa bilketagunea kokatuta dagoen lursaila erabiltzeko prest lagatzea.
- Landa bilketagunerako sarbidea kontrolatzea. Horretarako, hara nola sartu behar den arautuko du, eta Arabako Foru Aldundiari jakinaraziko dio, instalaziorako sarreran horretarako ezarritako informazio kartel batean ipintzeko .
- Sartzeko kontrolaren bitartez, bermatzea instalazio hori etxeetako hondakinetarako edo parekagarrietarako baizik ez dela erabiltzen, eta ezingo dutela erabili izaeragatik edo kantitateagatik etxeetako hiri hondakintzat edo parekagarritzat jo ezin diren hondakinak sortzen dituzten enpresek edo erakundeek.
- Baimendu egin beharko du hurbileko beste arabar herritar batzuk sar daitezen, eta ezingo du alegatu, inola ere ez, Lezako

Limpio Rural mediante obras de ampliación de la plataforma de hormigón, limpieza del entorno y colocación de señales informativas. Asimismo se dotará de un sistema de candado con llave para control del acceso al Punto Limpio Rural.

- Mantenimiento y restitución, en su caso, del vallado y señales.
- Gestión de los residuos depositados en los contenedores destinados a los residuos inertes procedentes de obras menores de reparación domiciliaria y voluminosos.
- Transporte de dichos residuos desde el Punto Limpio Rural hasta las plantas de gestión designadas por la Diputación Foral de Álava.

**Tercero.- Compromiso del Ayuntamiento de Leza**

**El Ayuntamiento de Leza se compromete y asume los costes de:**

- Disponibilidad del terreno donde se localiza el Punto Limpio Rural.
- Controlar el acceso al Punto Limpio Rural. Para este fin deberá aprobar la forma de acceder al mismo, lo que comunicará a la Diputación Foral de Álava para incluirlo en un cartel informativo dispuesto para tal fin a la entrada de la instalación.
- Mediante su control de acceso, garantizar que exclusivamente esta instalación está destinada a residuos domiciliarios o asimilables no pudiendo ser utilizado por empresas o entidades generadoras de residuos que bien por su naturaleza o cantidad no pueden considerarse residuos urbanos o asimilables a urbanos.
- Deberá autorizar el acceso a otros habitantes alaveses de localidades próximas no pudiendo, en ningún caso, alegar que es de uso exclusivo para la

herriak bakarrik erabiltzekoa dela.

- Aldian-aldian, edukiontziak noraino beteta dauden zaindu, eta, hala balegokio, Arabako Foru Aldundiari abisatzea edukiontziok ken ditzan eta hutsik dagoen beste bat ezar dezan.
- Garbi eduki behar du landa bilketagunerako izendatutako espazioa eta haren ingurua.
- Lagundu egin beharko du erabiltzaile izan daitezkeenei informazioa emateko eginkizunetan, betiere hiru frakzioen bereizketarako arauak gogoraraziz.
- Udalak herritarren eskura ezarritako baliabide gisa balia dezake instalazio hau, hartara ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua betetze aldera (eraikuntza eta eraisketako hondakinen produkzioa eta kudeaketa arautzen du, obra txikietako hondakinei buruz baino ez). Instalazio hauek ezin dira erabili obra handietako eraikuntza eta eraisketa hondakinak uzteko.

localidad de Leza.

- Periódicamente revisar los niveles de carga de los contenedores y en su caso, avisar a la Diputación Foral de Álava para que proceda a su retirada y sustitución por otro vacío.
- Mantener limpio el espacio destinado a Punto Limpio Rural y su entorno.
- Colaborar en las tareas informativas hacia los potenciales usuarios y usuarias recordando las pautas de segregación de las tres fracciones objetivo.
- El Ayuntamiento puede utilizar esta instalación como medio puesto a disposición de sus habitantes para dar cumplimiento al Decreto 112/2012, de 26 de junio, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición en lo que respecta exclusivamente a los residuos procedentes de obras menores. Estas instalaciones no pueden ser utilizadas para el depósito de residuos de construcción y demolición procedentes de obra mayor.

**Laugarrena. Hitzarmenaren indarraldia**

Hitzarmen honek lau urtean izango du indarra, sinatzen denetik kontatzen hasita. Hitzarmena luzatu egingo da berariaz, urtebeteko epeetan, baldin, lau urteko epe hori amaitu baino hiru hilabete lehenago, aldeetako batek ere ez badu adierazten hitzarmena deuseztatzeko nahia.

**Cuarto. Vigencia del convenio**

El plazo de vigencia de este convenio es de CUATRO AÑOS contados a partir de la fecha de su suscripción. El convenio se prolongará en el tiempo de forma expresa por periodos anuales si ninguna de las partes lo denuncia con una antelación mínima de tres meses antes de la finalización del plazo indicado.

**Bosgarrena.- Suntsiarazteko kausak**

Hitzarmena suntsiarazteko kausa dira hitzarmen hau sinatzen duten aldeentzat: hitzarmenaren klausulak ez betetzea, oraingo funtzionamendu araubidea aldaraz dezakeen beste edozein kausa, bai eta hitzarmenaren izaeraren ondoriozko beste edozein kausa, indarrean den legediak aintzat hartutakoa bada.

**Quinto.- Causas de Resolución**

Son causas de resolución para las partes del presente convenio, el incumplimiento de las cláusulas contenidas en el mismo, cualquier otra que pueda modificar el régimen de funcionamiento actual y cualesquiera otras que, derivadas de su naturaleza, sean recogidas por la legislación vigente.

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Eta hitzarmen honetako klausuletan ezarritakoarekin ados daudela adierazteko, bertaratuek agiri honen bi ale sinatzen dituzte goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Y, en prueba de conformidad con las determinaciones contenidas en el clausulado del presente Convenio, los comparecientes lo firman por duplicado en la fecha y lugar señalados en el encabezamiento.

**Por la Diputación Foral de Álava**

**Sr. D° Josean Galera Carrillo**

**Por el Ayuntamiento de Leza**

Ayuntamiento de LEZA (Álava) LEZAKO Udala (Araba)

**Sr. Dª Inmaculada Laredo**